POBREZIARA ETA PREKARIETATERA BEHARTZEN GAITUZTE
EUSKAL HERRIAK BERE BIDEA

Gune plataforma osatzen dugun sindikatu eta erakunde sozialok joan den otsaila eta martxoan Pobreziaren eta Prekarietatearen aurkako Kanpaina bat egin genuen. Orduan salatu genuenez, aplikatzen ari diren politika antisozialak herritar gehienak pobretzea eragiten dute, eta gutxiengo bat aberastea dakarte. Egoera honek okerrera egingo luke Europar Batasuna (EB) eta Ameriketako Estatu Batuak (AEB) sekretupean negoziatzen ari diren Merkataritza Libreko Hitzarmenarekin, merkatuek pertsonen eta herrien bizimodua areago hondatuko baitute.

Prekarietatea, pobrezia, babes gabezia, zalantza, eskubide murriztuak, aldi baterako enplegua, migrazio derrigortuak... Osagai hauek taxutzen dute esplotazioaren gainean eraikitako sistema ekonomiko bidegabe bat, eta desberdintasuna gero eta handiagoko sistema soziala. Esplotazioa eta desberdintasunaren biktima nagusia emakumea da.

Hego Euskal Herriko langabezia tasak %16a gainditzen du, hots, EBko batez besteko maila baino 6 puntu handiagoa da. Enplegurik gabe dagoen jendearen erdiak baino gehiagok ez du langabezia-prestaziorik jasotzen. Prestaziorik gabeko langabe portzentajea etengabe ari da hazten. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak prestazio sozialak moztu egin dituzte, zenbatekoari nahiz bera jasotzeko epeari dagokionez, eta hainbat kolektibo inolako babesik gabe utzi dituzte. Pobrezia maila azken 25 urteotako handienetakoa da. Emakumeek latzago jasaten dute pobretze dinamika hori. Beraz, agerian geratzen da sistema sozial honek herritarren erdia desberdintasun handiagoa pairatzera derrigortzen duela.

Horrenbestez, Pobreziaren eta Prekarietatearen aurkako Kanpainari berriz heldu behar diogu, batik bat orain, zenbaitek zalantzan jartzen baitu babes sozialeko sistema publiko, unibertsal eta duina izateko aukera bera ere. Hauek dira gure eskariak:

- Gutxieneko soldata zeharo hobetzea, ekiditeko lanean dagoen edonor pobrea izan dadin.
- Langabezia-prestazio duina, enplegurik aurkitzen ez den bitartean.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE edo RGI) eta Gizarteratzeko Errentaren (Oinarrizko Errentaren) zenbatekoa gehitzea, egungo LAGSEren (SMI) gainetik.

Horrekin batera, kide bat baino gehiagoko bizikidetza-unitateei aplikatzen zaien eskalak gehitzea. Egun indarrean dagoen sistemaren ordez diru-sarrerak bermatzeko sistema berri bat ezartzea, eskubide soziala izango dena. Bizimodu duina izateko eskubidea bermatu beharra dago. BDE eta Gizarteratze Errenta mantenduko direla bermatzea, baliabide ekonomikorik ez dagoen bitartean. Gizarte-Larrialdietarako laguntzak jasotzeko eskubide subjektiboa aitortzea; laguntza horiek benetako beharrizanak osatu behar dituzte.

- Prestazio sozialak jasotzeko aukera aitortzea murrizketen ondorioz baztertuta geratu diren kolektibo guztiei.
- Prestazio sozialak kudeatzerakoan aplikatzen ari diren irizpide murriztaileak alde batera uztea.
- Aurrekontuak gehitzea, ahalbidetzeko zerbitzu publiko unibertsal eta kalitatezkoak (osasungintza, hezkuntza, enplegua, arreta soziala) izango direla.
- Pertsona guztiei osasun eta osasun-arreta eskubidea, hezkuntza eskubidea eta etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea bermatzea. Halaber, bermatzea baliabide ekonomiko nahikorik ez duelako inor ez dela argindar, gas edo urik gabe geratuko.
- Erakundeen konpromisoa, babes sozialeko sistema oso bat ezartzea ahalbidetuko duten tresna propioak ezartzeko; sistema horri esker Euskal Herrian guztiek bizimodu duin, autonomo eta egokia garatzeko bitarteko eta baliabide nahikoak izango lituzkete.

Helburuok Hego Euskal Herriko erakundeak aplikatzen ari diren aurrekontu- eta zerga-politiken goitik beherako aldaketaren baitan leudeke.

Horregatik, dei egiten dugu ondorengo mobilizazioetan parte hartzera: urriaren 17an, Pobreziaren aurkako Nazioarteko Egunez, Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitza aurrean, eta azaroaren 7an, Gasteizko Legebiltzar aurrean.

Bilbon, 2014ko urriaren 15ean